



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

## **IRAGARKIA**

2022ko abenduaren 22ko Udalbatza Osoak honako akordioa onartu du:

**LEHENENGOA.-** 2023-2025 Azkoitiko Udaleko dirulaguntzen plan estrategikoa onartzea, testua honela geratzen delarik:

## **HITZAURREA**

Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1 artikulua oinarritzko izaera du; hori dela eta, diru-laguntzak eman nahi dituzten udal guztiek onartu beharra daukate beren Diru-laguntzen Plan Estrategikoa.

Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra beste urrats bat da sistema Ekonomikoaren hobekuntza eta arrazionalizazioan.

Legearen printzipioetako bat da gardentasunarena; printzipio horrek, Legean artikulatzen diren tresna anitzekin batera, eraginkortasun- eta eragingarritasun-mailen gehikuntza bat dakar berekin, modu zuzenean ekarri ere, dirulaguntzen gastu publikoaren gestioan.

Alde horretatik esan behar dena da merkatuari eragin liezaioketen distortsioak eta interferentziak kentzeko modua egongo dela diru-laguntzen inguruko informazio gehiago edukiz gero eta, horretaz gain, Administrazio Publiko guztietako jardueren koherentzia eta osagarritasuna erraztu eta mota guztietako gainezarketak galaraziko lirateke.

Legerian aginduta dago, eraginkortasuna hobetzeko, Diru-laguntzen Plan Estrategiko bat egitea, urte anitzeko izaera duena, diru-laguntzak edo Udalbatzak egiten dituen lankidetzak-hitzarmenak sortu aurretik.

Diru-laguntzen plan estrategikoa aurreikuspen bat besterik ez dela kontuan harturik, aldaketak izan litezke; nolana ere, aldaketa horiek egokitu beharra daukate Legera, Ordenantza espezifikora, une bakoitzean dagoen errealitate sozialera eta, batik bat, dagokion ekitaldiko aurrekontuetara.

Azkenik, aipatu beharra dago Plan honetan aurreikusitako diru-laguntzak behin betiko ezartzeko, horiei dagozkien kontsignazioak sartu behar direla urte bakoitzeko udal aurrekontuetan eta ezinbestekoa izango dela aurrekontu-egonkortasuneko helburuak betetzea.

## **I KAPITULUA XEDAPEN OROKORRAK**

### **1. artikulua. Izaera Juridikoa**



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Diru-laguntzen Plan Estrategikoa da izaera programatikoa duen kudeaketa-tresna bat, indar arautzailerik ez duena.

Dirulaguntzen Plan Estrategikoa onartzeak ez dakar berekin onuradun izan daitezkeen erakunde eta/edo pertsonen aldeko inongo eskubiderik sortzea. Diru-laguntzen Plan Estrategikoa da gida bat zeinak, aurretik ezarrita dagoen arau-esparruaren barruan, interes orokorreko jarduerak sustatzeko jarraibidea ematen duen.

Diru-laguntza lerro bakoitzean aurreikusitako kopuruak dira Udalaren urteko aurrekontu bakoitzean jasotakoak. Aurrekontu ekitaldi bakoitzeko jarduketa-lerro hauek eta beren kontsignazioak dagokien urteko aurrekontuan onartzeak baldintzatu eta mugatuko du lerro horien indarra.

## **2. artikulua. Indarraldia**

Diru-laguntzen Plan Estrategiko hau 2023-2025 aldian egongo da indarrean.

2023ko ekitaldia bukatutakoan beste Diru-laguntzen Plan Estrategiko bat onartuta ez badago, ulertuko da plan hau luzatu egiten dela gauzatzen jarraituko duten jarduketa-lerroetan, betiere, horretarako aurrekontuko kontsignazio egoki eta nahikoa badago.

Oro har, udalak emandako diru-laguntzek urtebeteko exekuzio-epea izango dute eta, justifikazioaren ondorioetarako, urte naturala da aukeratzen den epea. Zirkunstantziek hala eskatuta, urtebete baino gehiagoko exekuzio-epea jartzea edo aldi hautagarria aldatzea komeni bada, dagokien diru-laguntzen oinarrietan jaso beharko da.

## **3. artikulua. Eskumena**

Diru-laguntzen Plan Estrategikoa onartzeko eskumena duen organoa Osoko Bilkura da, diru-laguntzen Oinarri Orokorrak eta Espezifikoak onartzearekin lotutako egintza den heinean.

## **4. artikulua. Esparrua**

Diru-laguntzen Plan Estrategiko honek barruan hartzen ditu Azkoitiko udalean deialdiak egiten dituzten departamentuetatik kudeatutako diru-laguntzak. Hauek dira, hain zuzen, departamentuok:

- Ogasuna, Langileak eta Barne Antolaketa
- Kirolak eta Festak
- Kultura
- Hezkuntza eta Euskara
- Gizarte Ongizatea
- Berdintasuna eta Prebentzioa



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

- Lan eta Zerbitzuak
- Ingurumena
- Sustapen Ekonomikoa

## II. KAPITULUA PLANAREN HELBURUAK

### 5. artikulua. Planaren helburu orokorrak

Udalaren Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren lanketa, politika publikoen benetako planifikazio estrategiko bat egiteko ariketa gisa hartzen da.

Planaren lanketak honako helburu orokor hauek lortzea du helburu:

1. Betetzea azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1 artikuluan jasotako legezko agindua, zeinak diru-laguntzak ezartzea proposatzen duten Administrazio publikoak behartzen dituen aldez aurretik Diru-laguntzen Plan Estrategiko bat egitera.
2. Udalari tresna bat ematea beraren eskumenekoak diren gaietan interes publiko eta sozialeko jarduerak babestu eta sustatu ahal izan ditzan.
3. Udaleko laguntza-lerro guztiei printzipio komun eta oinarri arautzaile batzuk ematea.
4. Ekonomiaren ikuspegitik, laguntzen jasangarritasun eta eraginkortasuna hobetzeko aukera emango duten tresnak definitzea.
5. Gardentasuna, informaziorako sarbidea eta gobernantza on bat, udal guztiei eskatzeko modukoa den zerbait.

### 6. artikulua. Printzipio orokorrak

Plan honen printzipio orokorrak dira honako hauek:

#### 6.1. Publikotasunaren eta gardentasunaren printzipioa:

Printzipio hau gauzatzen da objektibotasuna, gardentasuna, publikotasuna, lehia eta funts publikoen banaketan berdintasuna bermatzen dituen aurretiazko deialdia eginda. Dena dela, laguntza zuzenean eman daiteke, hala xedatuta baitago azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorrean, Azkoitiko Udalaren aurrekontua Exekutatzeko Oinarrietan eta aplikagarria den gainerako araudian.

Printzipio hau gauzatzen da, orobat, diru-laguntzen alorreko publikotasuna errespetatuta azaroaren 17ko Diru-laguntzen 38/2003 Lege Orokorrean eta, halaber, Estatuko Kontu-hartzaitza Nagusiaren 2015eko abenduaren 9ko Ebazpenean, Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean derrigor argitaratzeari dagokionean, xedatuta dagoen bezala.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

6.2. Lehia askearen, berdintasunaren eta bereizketarikezaren printzipioa: Printzipio hau gauzatzen da onuradunek, interes orokorra erabat asetzeko, bete behar dituzten baldintzak zehaztuta.

6.3. Objektibotasunaren printzipioa: Diru-laguntzak emango dira irizpide objektibo batzuen arabera. Irizpide horiek deialdia egin baino lehenago ezarriko dira, onuradun izan daitezkeenek ezagutzen dituztela bermatuta egon dadin.

6.4. Eraginkortasunaren eta eragingarritasunaren printzipioak: Eraginkortasuna ezarritako helburuak betetzen eta eragingarritasuna baliabide publikoen esleipenean, esleipen hori kuantitatiboki eta kualitatiboki justifikatu behar delarik.

6.5. Egonkortasunaren eta gastu-arauaren printzipioa: Diru-laguntzak emango dira egonkortasun eta gastu-arauaren printzipioarekin bat etorrita, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoak xedatzen duen bezala.

6.6. Kontrolaren eta helburuetara egokitzearen azterketaren printzipioa: Diruz lagundutako jarduerak gauzatzean entitate eskatzaileak berdintasunaren eta bereizketarik ezaren printzipioetara egokitzen ote diren aztertu eta kontrolatu.

**7. artikulua. Helburu estrategikoak eta eraginak departamentuka, eta aurreikusitako diru-laguntzen zerrenda:**

OGASUNA, LANGILEAK ETA BARNE ANTOLAKETA ALORREKO DIRULAGUNTZAK					
DIRU LAGUNTZA LERROA	HELBURUAK	LORTU NAHI DIREN ONDORIOAK	URTEKO KOSTOA	FINANTZIAZIOA	ESLEIPEN PROZEDURA
Azkoitiko lixibiatuen tratamendua burutzeko diru laguntza.	Hondakin-uren tratamendua prozesu fisiko-kimiko eta biologikoen bidez horiek dituzten kutsazaile organiko inorganiko gehieneguzabapena.	Tratamendu honen bidez ibai eta erreketara ur garbia isurtzea ahalbidetzea lortu nahi da, hondakin-zikinak efluente garbi bat bihurtzen baititu.	95.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	IZENDUNA.
Alderdi Politikoen diru laguntzak.	Alderdi Politikoen jarduna garatu ahal izatea	Azkoitiko Udalean ordezkariak duten alderdi politikoen, lotura ekonomiko gabe, euren jarduna garatu ahal izatea.	61.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	IZENDUNA.



**AZKOITIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA**

Eudeli diru laguntza.	Udal autonomia bultzatu eta defendatzea	Euskadiko Udalen kohesiorako koordinatzea eta dinamizatzea, esperientziak trukatzeko, modernizazioa ahalbidetuko duten praktika onak hedatzeko eta euren eragina sendotzeko.	3.100,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	IZENDUNA.
-----------------------	---	--	----------	--	-----------

<b>KIROL ETA FESTA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.</b>					
DIRU LAGUNTZA LERROA	HELBURUAK	LORTU NAHI DIREN ONDORIOAK	URTEKO KOSTOA	FINANTZIAZIOA	ESLEIPEN PROZEDURA
Azkoitiko Udalerrian FESTAK sustatzeko laguntzak	Azkoitiko auzo elkarte eta norbanakoak, festak antolatzeko modua izatea.	Auzoetan, bertako bizilagunen partaidetzarekin festak antolatu	17.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	NORGEHIAGOKA
TATA DANBORRADA ELKARTEAREN egitasmoa garatzeko diru laguntza.	Helduen danborrada antolatzea.	Azkoitiko helduek danborradan parte hartzeko aukera izatea, herrian errotuta dagoen ohiturari jarraituz	8.500,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
ANDRAMARI Jaiak sustatzeko diru laguntza.	Elkarteak Andramari jaietan ekintzak antolatzeko modua izatea.	Andramaixetako ekintzen antolamenduan, herriaren partaidetza bultzatzea.	6.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	NORGEHIAGOKA
TATA DANBORRADA ELKARTEA (umeak) egitasmoa garatzeko dirulaguntza	Umeen danborrada antolatzea.	Azkoitiko umeen danborradan parte hartzeko aukera izatea, herrian errotuta dagoen ohiturari jarraituz	8.500,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
PARROKIA ERREGE KABALGATAREN egitasmoa garatzeko diru	Erregeen kabalgata antolatzea.	Urtarrilaren 5ean herriko haur eta nerabeek kabalgataren ikuskizuna ilusioz	3000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA



**AZKOITIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA**

laguntza.		bizitzea			
PARROKIA ASTE SANTUAK egitasmoa garatzeko diru laguntza.	Ostiral Santuko prozesioak antolatzea eta mantentzen jarraitzea.	Mendeetako usadioari helduz, Aste Santutako prozesioak antolatzea, arratsalde eta gauean. Turismo eta kultur arloan indar handia hartzen joan den ekintza da, kanpotar asko erakartzen dituelarik gure herrira.	7.350,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
URRETEGIKO FESTA BATZORDEAREN egitasmoa garatzeko diru laguntza	Azkoitiko Urrategi auzunean festak antolatzea.	Azkoitiko herriak, Urrategiko Amaren egunean, bertako festak modu egoki batean antolatuta ikustea.	5.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
ESKOLA KIROLA egitasmoa garatzeko diru laguntza.	Azkoitiko ikastetxeetan kirol ezberdinak sustatu eta garatu	Azkoitiko haur eta gazteak, ikastetxeetan kirol ezberdinak, modu egoki batean, ikasi eta praktikatzea.	25.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
Azkoitiko Udalerrian KIROL ERAKUNDEEI dirulaguntzak	Herriko taldeek kirol ekintzak antolatzeko modua izatea.	Azkoitiarrek herrian kirol ekintza edo lehiaketa ezberdinetan parte hartu edo ikusteko aukera izatea	50.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	NORGEHIAGOKA
ANAITASUNA FUTBOL TALDEA Elkartearen egitasmoa garatzeko diru laguntza.	Azkoitian futbola sustatu eta garatu	Herriko ikastetxeekin lankidetzan eskola kiroleko futbola aurrera eramango da, herriko futbolaren plangintzaren programa prestatuko da eta Txerloia eta San	54.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

		Juan futbol zelaien kudeaketa aurrera eramango da.			
OTEIZA PILOA TALDEA Elkartearen egitasmoa garatzeko diru laguntza.	Azkoitian pilota sustatu eta garatu	Herriko ikastetxeekin lankidetzan eskola kiroleko pilota aurrera eramango da, herriko pilotaren plangintzaren programa prestatuko da, Azkoitiarrek aukeran izan ditzaten pilota jarduera guztiak.	12.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
IRAURGI SASKI BALOI TALDEA Elkartearen egitasmoa garatzeko diru laguntza.	Azkoitian saski baloia sustatu eta garatu	Herriko ikastetxeekin lankidetzan eskola kiroleko saski baloia aurrera eramango da eta herriko saski baloiaren plangintzaren programa prestatuko da.	32.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
MARATOI ERDIKO BATZORDEAREN egitasmoa garatzeko diru laguntza.	Azkoitian korrikarako zaletasuna sustatu.	Urola bailararen promozioa egitea kirol eta turismo arloan. Baita ere Diego Garcia korrikalariaren oroimena mantendu.	7.500,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
ZUBIAURRE IGERI Elkartearen egitasmoa garatzeko diru laguntza.	Azkoitian igeriketa sustatu eta Garatu.	Herriko igeriketa plangintzaren programa prestatuko du. Azkoitiarrek aukeran izango dituzten igeriketa jarduera guztiak jasoko dituen: lehiaketak edo sustapena, ikastetxe edo klubeko	10.500,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

		esparruan.			
TXERLOI TENIS KLUBaren egitasmoa garatzeko dirulaguntza	Azkoitian tenis zaletasuna sustatu	Herriko tenis plangintzaren programa prestatuko du. Azkoitiarrek aukeran izango dituzten tenis jarduera guztiak jasoko dituen.	6.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
ANAITASUNA xake taldearen egitasmoa gartzeko dirulaguntza	Azkoitian Xake zaletasuna sustatu	Azkoitian Xake bultzatzeko egitasmoa prestatu du.	10.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
ELKARGUNE ZUBIAURRE Institutoari kirol arloaren dirulaguntza	Azkoitian kirola sustatzea	Azkoitian kirola sustatu eta praktikatzeko baliabide egokiak izatea	631.400,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
ANAITASUNA FUTBOL TALDEA Elkarteari zelaiaren mantenua egiteko dirulaguntza.	Txerloia Futbol Zelaia egoera onean mantentzea.	Futbol partiduak belarrezko zelaian modu egokian jokatzeko aukerak izatea.	9.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA

KULTUR ARLOKO DIRULAGUNTZAK.					
DIRU LAGUNTZA LERROA	HELBURUAK	LORTU NAHI DIREN ONDORIOAK	URTEKO KOSTOA	FINANTZIAZIOA	ESLEIPEN PROZEDURA
BIZKARGI MUSIKA ETA DANTZA eskola egitasmoa garatzeko dirulaguntza.	Musikaguneko ikastaro eta kontzertuak antolatzea.	Herritarrak txikitatik musika eta dantza ikasteko aukera izango dute. Herrian dauden Musika Banda, Abesbatza eta Dantza taldeari jarraipena ematen diote.	84.500,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA





**AZKOITIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA**

MUSIKA BANDAREN egitasmoa garatzeko diru laguntza.	Azkoitian Musika Banda izatea.	Musika zaletasuna duen edonork, musika arloan parte hartzeko elkarte herriarri izatea eta herriko ekintza eta festetan Musika Banda horren partaidetza izatea	45.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
MUSIKA BANDAREN FORMAZIOA garatzeko diru laguntza.	Azkoitian Musika Banda izatea.	Musika Bandako partaideek formakuntza egoki bat jasotzea	2.500,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
Azkoitiko Udalerrian MUSIKA ETA ANTZERKI EKITALDIAK sustatzeko laguntzak	Herriko talde eta norbanakoen kultur ekintzak antolatze modua izatea.	Azkoitiarrek herriarri kultur ekintza edo lehiaketa ezberdinetan parte hartu edo ikusteko aukera izatea.	60.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	NORGEHIAGOKA
IRAURGI ABESBATZA Elkartearen egitasmoa garatzeko diru laguntza.	Azkoitian Abesbatza taldea izatea	Kantu zaletasuna duen edonork, kantu arloan parte hartzeko elkarte herriarri izatea eta herriko ekintza eta festetan Abesbatza horren partaidetza izatea	10.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
ALAI BATZA Elkartearen egitasmoa garatzeko diru laguntza.	Azkoitian Aisialdiko talde indartsu bat edukitzea	Azkoitiko haur eta gaztetxoek aisialdia modu egoki eta hezitzaile batean pasatzeko aukera izatea	9.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
Azkoitiko Txalkor elkarte diruz laguntzea	Azkoitian txistua bultzatzea	Azkoitian txistuaren erabilera eta zeletasuna bultzatu eta bermatzea	15.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA.
SAHATSA dantza elkarte diruz laguntzea	Azkoitian dantza bultzatzea	Azkoitian dantza bultzatzea eta horretarako behar dituzten jantziak erosten laguntza	8.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

MATADERO ELKARTE KULTURALA Elkartearen egitasmoa garatzeko diru laguntza.	Azkoitiko Matadeixen antolatzen diren antzerki topaketa eta "Bebarruko jardunaldiei" laguntzea	Matadeiko egitarauan hilabete batzuetan antzerki eta musika emanaldiak izatea.	12.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
MATADERO ZINETOGRAM Elkartearen egitasmoa garatzeko diru laguntza.	Azkoitian Zine Foruma bultzatzea.	Hiru astean behin Zine Forumeko pelikulak proiektatzea.	9.300,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
AZPEITIKO UDALARI MUNOAUNDI AZTARNATEGIKO egitasmoa garatzeko diru laguntza.	Burdin Aroko, Munoaundiko aztarnategian indusketak egitea.	Gure arbasoen bizitzeko modua eta ohiturak ikertzea, gizarteari modu didaktikoan erakusteko	12.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
ANTONIO OTEIZA FUNDAZIOAREN egitasmoa garatzeko diru laguntza.	Antonio Oteiza Fundazioak hainbat gai eta arte jarduerak landu eta sustatzea.	Antonio Oteiza eskultore eta idazlearen obra erakustera eraman, bere lan batzuen bilduma egin eta ahal den neurrian zabaldu	3.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
EUSKALERRIKO ADISKIDEEN Elkartearen egitasmoa gartzeko dirulaguntza	EUSKALERRIKO adiskideen elkarteak hainbat jarduera sustatzen ditu Intsausti Jauregian	urtero argitalpen interesgarriak kaleratzea	7.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
Elkargune Institutoari gazteria arloko diru laguntza	Gazteria arloan dauden beharrei neurriko erantzun bat ematea	Azkoitian gazteria arloan dauden beharrei aurre egitea	397.100,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA.

**HEZKUNTZA ETA EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.**

DIRU LAGUNTZA LERROA	HELBURUAK	LORTU NAHI DIREN ONDORIOAK	URTEKO KOSTOA	FINANTZIAZIOA	ESLEIPEN PROZEDURA
----------------------	-----------	----------------------------	---------------	---------------	--------------------



**AZKOITIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA**

XABIER MUNIBE 50. Urteurrena egitasmoa	Xabier Munibe Ikastolaren 50. Urteurrena ospatzeko hainbat jarduera burutzea	Azkoitian, Xabier Munibe Ikastolaren jarduera herritar guztiei zabaltzea eta 50. Urteurrena ospatzeko ekitaldiak egitea	10.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
Azkoitia BHI Euskera gure etorria	Gazteen artean euskal kulturaren ezagutza sendotzea	Gazteek euskal kultura kontsumitzea	1.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	IZENDUNA
Errotuluak, irudi korporatiboa, web guneak, programa informatikoak eta publizitatea eskaraz jartzeko diru laguntzak.	Errotuluak, irudi korporatiboa, web guneak, programa informatikoak eta publizitatea eskaraz jartzea.	Azkoitian euskararen erabilera enpresetan eta establezimenduetan bultzatzea.	7.500,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	NORGEHIAGOKA
Enpresetan euskara planak egiteko edo garatzeko diru laguntzak.	Enpresetan euskara planak egitea edo garatzea.	Azkoitian euskara sustatzea enpresa arloan.	6.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	NORGEHIAGOKA
Euskara ikasi eta UEU, EHU-UPV eta HIK HASIren uda ikastaroetara joateko diru laguntzak eta ez ohiko jarduera puntualak.	Euskara ikastea eta UEU, EHU-UPV eta HIK HASIren uda ikastaroetara joatea eta euskara sustatzeko jarduera puntualak bultzatzea.	Azkoitiko herritarren artean euskara gaitasuna handitzea eta sor daitezkeen euskara sustatzeko jarduera puntualak sustatzea.	32.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	EBALUAZIO BAKOIZTUA
UKT (Urolaldeko Komunikazio Taldea) komunikabideak euskaraz garatzeko.	Informazioa euskaraz zabaltzea (papera, Telebista eta internet).	Azkoitian euskara sustatzea hedabideetan.	45.150,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	IZENDUNA
Maxixatzen dirulaguntza	Euskararen erabilera handitzea	Euskaldunak aktibatzea eta kontzientziatzea	12.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	IZENDUNA
Bertso papel lehiaketa	Azkoitian euskara eta bertako euskalkiaren erabilera bultzatzea bertsolaritzaren bidez	Azkoitiarrak bertso sortak idaztea bultzatzea eta Azkoitian, bertso idatzi sorta berriak izatea	2.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuko IV. Kapituluaren kontura.	NORGEHIAGOKA



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

GIZARTE ONGIZATE ARLOKO DIRULAGUNTZAK.					
DIRU LAGUNTZA LERROA	HELBURUAK	LORTU NAHI DIREN ONDORIOAK	URTEKO KOSTOA	FINANTZIAZIOA	ESLEIPEN PROZEDURA
Drogramenpeko tasunak tratatzeko dirulaguntzak	Adikzioen tratamenduko zentzura joaten diren Azkoitiarrei eta beraien senitartekoei erreabilitazioan laguntzea	Tratamendu zentzura joatearen oztopoa ez izatea garraioaren kostua; beraz, tratamenduaren hasiera eta jarraipena bultzatzea.	1.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	EBALUAZIO BAKOIZTUA/AKORDIOA
Preso dauden senideentzako garraiorako dirulaguntzak	Euskal Autonomia Erkideko kanpoko presondegietara egiten dituzten bisitak direla eta zigorraz preso dauden edo prebentzioz kartzelaturik dauden pertsonen sendiei sortzen zaizkien joan-etorrien gastuak zati batean diruz laguntzea.	Preso dauden edo prebentzioz kartzelaturik dauden senitartekoei presondegietara bisitan joatea oztopo ekonomikoak ekidituta	1.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	EBALUAZIO BAKOIZTUA/AKORDIOA
San Jose Egoitzarentzat diru laguntza.	San Jose Egoitzan dauden gastuei aurre egiteko Egoitza diruz laguntzea.	San Jose Egoitzaren eskaintzak beharrezko diren kalitatea izatea bermatzea.	60.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
Zaharren astea burutzeko diru laguntza	Zaharren astea burutzeko suertatzen diren gastuei aurre egiteko jubilatuen elkarte diruz laguntzea.	Zaharren astea antolatzea eta parte hartzea bermatzea.	5.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
Marea Urdina elkartearen egitasmoa garatzeko diru laguntza	Aniztasun funtzionala duten pertsonen familiei laguntza zerbitzua izatea bermatzea.	Azkoitian Aniztasun funtzionala duten pertsonen familiak elkartearen bitartez laguntzea.	2.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA



**AZKOITIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA**

GURUTZE GORRIA Elkartearen egitasmoa garatzeko diru laguntza.	Azkoitian Gizarte Ongizate arloan azkoitiarrentzat jarduerak antolatzen dituzten irabazi asmorik gabeko elkarten jarduerak diruz laguntzea	Bultzatzea Azkoitian azkoitiarrentzat hitzaldiak, ikerketak, prestakuntza, aisialdia, boluntarioria, arreta zailtasunak dituzten herritarrentzat eta gizarte-ekintza.	5.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
PAUSO BERRIAK egitasmoa garatzeko diru laguntza.	Azkoitian Gizarte Ongizate arloan azkoitiarrentzat jarduerak antolatzen dituzten irabazi asmorik gabeko elkarten jarduerak diruz laguntzea	Bultzatzea Azkoitian azkoitiarrentzat hitzaldiak, ikerketak, prestakuntza, aisialdia, boluntarioria, arreta zailtasunak dituzten herritarrentzat eta gizarte-ekintza.	4.200,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
ODOL EMAILEAK elkartearen egitasmoa garatzeko diru laguntza.	Azkoitian Gizarte Ongizate arloan azkoitiarrentzat jarduerak antolatzen dituzten irabazi asmorik gabeko elkarten jarduerak diruz laguntzea	Bultzatzea Azkoitian azkoitiarrentzat hitzaldiak, ikerketak, prestakuntza, aisialdia, boluntarioria, arreta zailtasunak dituzten herritarrentzat eta gizarte-ekintza.	4.500,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
KARITAS Elkartearen egitasmoa garatzeko diru laguntza.	Azkoitian Gizarte Ongizate arloan azkoitiarrentzat jarduerak antolatzen dituzten irabazi asmorik gabeko elkarten jarduerak diruz laguntzea	Bultzatzea Azkoitian azkoitiarrentzat hitzaldiak, ikerketak, prestakuntza, aisialdia, boluntarioria, arreta zailtasunak dituzten herritarrentzat eta gizarte-ekintza.	12.425,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA



**AZKOITIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA**

IZAN fundazioa elkartearen egitasmoa garatzeko diru laguntza.	Azkoitian Gizarte Ongizate arloan azkoitiarrentzat jarduerak antolatzen dituzten irabazi asmorik gabeko elkarten jarduerak diruz laguntzea	Bultzatzea Azkoitian azkoitiarrentzat hitzaldiak, ikerketak, prestakuntza, aisialdia, boluntarioria, arreta zailtasunak dituzten herritarrentzat eta gizarte-ekintza.	2.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
Elikagai Bankuari diru-laguntza	Gipuzkoako lurraldean elikagaien zarrastelkeriaren aurka egitea	Azkoitian elikagaien zarrastelkeriaren aurka egitea	2.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
DARAHLI elkartearen egitasmoa garatzeko diru laguntza.	Azkoitian Gizarte Ongizate arloan azkoitiarrentzat jarduerak antolatzen dituzten irabazi asmorik gabeko elkarten jarduerak diruz laguntzea	Oporrak bakean programaren baitan Azkoitiko familietan artatzen duten bi adingabeen bidaiak ordaintzea.	2.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
AEEC Elkartea dirulaguntza	Espainiako gizarteak minbiziaren eragina murrizteko eta pertsonen bizitza hobetzeko lana egiten da.	Urola kostan jarri dute egoitza. Asmoa da laguntza eskaini ahal izatea minbizi bizi duten azkoitiarrei eta berain familiei: psikologikoa, soziala, akonpainamendua	1.500,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
Jubilatuen etxearen mantentze eta Jubilatuen etxearen baitan antolatzen diren jarduerak bultzatzeko diru-laguntza	Jubilatuen etxean dauden gastuei aurre egiteko eta bultzatzea Azkoitiko pertsona nagusien parte hartzea eta gizarteratzea; pertsona nagusiak aktibo mantentzea; eta, indartzea adinekoek beraien artean eta komunitatearekin dituzten harremanak.	Jubilatuen elkartearen eskaintzen diren jarduerak kalitatezko bermearekin ematea.	45.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
Garapen bidean dauden herrialdeekin lankidetzaz garatzeko diru	Gobernuz Kanpoko Erakundeekin garapen bidean dauden herrialdeetan burutzen dituzten programak	Garapen bidean dauden herrialdeetako bizilagunen baldintza sozial,	60.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	NORGEHIAGOKA



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

laguntza.	aurrera eramateko diruz laguntzea, baita azkoitiarrak sentsibilizatzeko antolatzen dituzten ekintzak ere.	ekonomiko eta kulturalak hobetzea. Baita ere herrialde horien egoeraren berri azkoitiarrei ematea.			
Gizarte larrialdietarako diru-laguntzak	Azkoitiarren gizarte-bazterkeria egoerak prebenitzeko, saihesteko edo leuntzeko beharrezko diren gastu espezifikoei –ohikoak zein apartekoak– aurre egitenko behar beste baliabide ez dutenei diruz laguntzea.	Azkoitiarrek ohiko etxebizitza edo alojamendua eduki eta mantendu ahal izatea; oinarritzko premiei buruzko gastuak bermatuak edukitzea (jantziak, hezkuntza...); eta, zorpetzeko gastuekin laguntzea	149.071,00	Finantzaketa Eusko Jaurlaritzaren funtsen bitartez egingo da	EBALUAZIO BAKOIZTUA/AKORDIOA
Etxeko eremuan tratu txarrak pairatu dituzten emakumeei laguntzeko diru-laguntzak	EAEko legediak aurreikusten dituen laguntzak osatzea azkoitiar emakumeek eduki ditzaketen oinarritzko beharrak asetzeko.	Emakume azkoitiarrek pairatu duten indarkeria matxistaren ondorioei aurre egiteko laguntza osagarria ematea	4.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	EBALUAZIO BAKOIZTUA/AKORDIOA
Gizarte ongizate arloko hainbat diru-laguntza	Azkoitiarren gizarte-bazterkeria egoerak prebenitzeko, saihesteko edo leuntzeko beharrezko diren gastu espezifikoei –ohikoak zein apartekoak– aurre egitenko behar beste baliabide ez dutenei diruz laguntzea.	Azkoitiarrek ohiko etxebizitza edo alojamendua eduki eta mantendu ahal izatea; oinarritzko premiei buruzko gastuak bermatuak edukitzea (jantziak, hezkuntza...); zorpetzeko gastuekin laguntzea; eta abar	35.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	EBALUAZIO BAKOIZTUA/AKORDIOA
Gizarte Zerbitzuen Maparen Garapena	Bailaran Gizarte Zerbitzuen mapa garatzea	Mapa honekin lortu nahi dena da erakundeen arteko lankidetzeta eta koordinazioa bultzatzea eta gizarte partaidetza sustatzea, Udalen	37.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

		adostasuna lortuz.			
--	--	--------------------	--	--	--

BERDINTASUNA ETA PREBENTZIOA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.					
DIRU LAGUNTZA LERROA	HELBURUAK	LORTU NAHI DIREN ONDORIOAK	URTEKO KOSTOA	FINANTZIAZIOA	ESLEIPEN PROZEDURA
Maxixatzen "gure gelatik" egitasmoa	Emakume idazleak eta literatura bultzatzea	Azkoitiko emakumeen literatura astea egitea	7.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA

OBRA ETA ZERBITZUAK ARLOKO DIRULAGUNTZAK					
DIRU LAGUNTZA LERROA	HELBURUAK	LORTU NAHI DIREN ONDORIOAK	URTEKO KOSTOA	FINANTZIAZIOA	ESLEIPEN PROZEDURA
Urkome ekarpena	Azkoitian nekazaritza sustatzea	Azkoitian nekazaritza bultzatzea	22.500,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
Azkoitiko Udalerrian gazteek etxebizitzak alokatzeko dirulaguntzak	—Eskaera egiten duten gazteen ohiko bizilekua izango den etxebizitzaren alokairua ordaintzen laguntzea, zati batean.	—Bereziki pertsona gazteei laguntzea heuren emantzipazio bidean eta helduen mundura sartzeko prozesuan. —Modu orokorrean, Azkoitiko herrian alokairuko etxebizitza eskuratzea sustatzea. — Arkitektura-oztopoak ezabatzeko indarrean dagoen araudiak ezarritako irrisgarritasun-baldintzak betetzen dituzten alokairuko etxebizitzak eskuratzea sustatzea.	45.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	NORGEHIAGOKA





**AZKOITIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA**

Azkoitiko Udalerrian alokairu soziala sustatzeko laguntzak	—Eraginkortasun Energetikoaren Ziurtagiria lortzeko gastuei aurre egiteko diru-laguntza. — Etxebizitzak eraberritu eta haien irisgarritasuna bermatzeko diru-laguntzak. — Etxebizitzak eraberritzen badira, obrak egiteko ordaindutako tasa eta zergaren zati baten pareko diru-laguntza bonoetan.	—Oinarrizkoa den etxebizitza eskubidea bermatzen lagundu. — Hutsik dauden etxebizitzak alokairu soziala bultzatu. — Etxebizitzak eraberritzea bultzatu eta herriko ekonomia suspertu. —Herriko merkataritza-jarduera sustatu. — Etxebizitzetan eta, orokorrean, egoitza-erakinetan, irisgarritasuna bermatzea.	15.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	NORGEHIAGOKA
--	--	--	-----------	---	--------------

INGURUMENA ARLOKO DIRULAGUNTZAK					
DIRU LAGUNTZA LERROA	HELBURUAK	LORTU NAHI DIREN ONDORIOAK	URTEKO KOSTOA	FINANTZIAZIOA	ESLEIPEN PROZEDURA
Ingurumen arloko dirulaguntzak	Azkoitian ingurumenaren esparruan jarduerak sustatzea	Azkoitian ingurumen arloan azterketak, ikastaroak antolatzea-Tokiko ekonomia garapena sustatzeko jarduerak antolatzea	6.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	NORGEHIAGOKA
Zaborra jasotzeko zerbitzu mankomunatuari diru laguntza	Azkoitian zaborra jasotzeko zerbitzua behar bezala ematea	Azkoitian zaborra jasotzea ahalik eta zerbitzu hobereana emanez.	1.359.817,71	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA

SUSTAPEN EKONOMIKO ARLOKO DIRULAGUNTZAK					
DIRU LAGUNTZA LERROA	HELBURUAK	LORTU NAHI DIREN ONDORIOAK	URTEKO KOSTOA	FINANTZIAZIOA	ESLEIPEN PROZEDURA
Iraurgi Lantzen Sari diru-laguntza, enpresa sarea dinamizatzeke	Eskualdeko enpresen lehiakortasuna, garapena, eta eraldaketa sustatzea du helburu, enpresen beharren arabera	Eskualdeko enpresen elkarlana bultzatu eta bermatu, sarean parte hartzen duten enpresen lehiakortasuna	61.769,70	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

	proiektuak garatuz	helburu izanik.			
Iraurgi Lantzen Sari diru-laguntza, enplegua sustatzeko zerbitzua bultzatzeko	Enplegua modu aktiboan bilatzeko interesa duten langabe, edo enplegua hobetu nahi duten langileei, arreta espezializatu eta baliabideak eskaini lan-bilaketan lagunduz. Eskualdeko beharretara egokitutako Enplegu eta Prestakuntza programak diseinatu eta garatu, langabeei lan munduratzeko eta beraien lan-merkatuko egoera hobetzen lagunduz. Urola Erdiko eragileekin elkarlanean, enplegu arloko informazioa eta eskaintza bateratua eta eguneratua jaso, herritarren eskura jarritz.	Eskualdean enplegua eta prestakuntza sustapenerako tokiko politika integrala garatu: bailarako langabe eta langabetu kolektiboei egokitutako programa, zerbitzu, erakintza eta ikastaro desberdinak antolatu, bailarako enplegu eta prestakuntza eragileekin "&"elkarlanean	183.505,53	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
Iraurgi Lantzen Sari diru-laguntza, kontsumitzaileen arreta zerbitzuarentzat	Kontsumitzaile eta erabiltzaileei informazioa eta laguntza eskaintzea da.	Kontsumitzaile eta erabiltzaileei eta erabiltzaileei interesa daitekeen beste zentru publiko edo pribatu batzuen helbideak eta oinarrizko zerbitzuen berri ematea Kontsumitzaileen eta erabiltzaileen kexu eta erreklamazioei sarrera ematea, erregistratzea eta jaso izanaren berri ematea	7.018,03	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA



**AZKOITIKO UDALA**  
**AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA**

Iraurgi Lantzen Sari diru-laguntza, turismoa zerbitzuarentzat	Jomuga turistikoko erkargarri bat artikulatu non norbanako nahiz trade bidezko bisitari turistek produktu, zerbitzu eta baliabide turistikoak kontsumitu ahal ditzaketen, kontsumo horrek sortuko dituen kanpo errenta bidez eskualdeko sektore turistikokoaren garapena bilatzeko.	Erakunde arteko harremanak gauzatu eta erraztea, dirulaguntzen kudeaketa eta eredu berriaren zehaztepenerako bidea egitea	23.468,24	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
Iraurgi Lantzen Sari diru laguntza, Loiola bisitari zentruarentzat	Bisitarien harrera eta harreta baliabide eta produktu turistikoen sustapen eta salmenta, eta eskualdeko jardueren turistikokoaren antena lanak egitea	Eskualdeko Turismo bulegoa, bisitariarentzat erreferentzi puntu bilakatzea	26.433,45	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
Iraurgi Lantzen Sari diru-laguntza, merkataritza bultzatzeko	Eskualdeko txikizkako merkataritza lehiakorrak izan dadin, eragile ezberdinen arteko koordinazioa eta lankidetzaren sustatu eta horretarako beharrezkoak diren baliabide nahiz ekintzak garatu.	Eskualdeko merkataritza lehiakorrak egitea, elkarrekin arteko elkarlana sustatuz.	5.348,92	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
Herrixen Elkartearen egitasmoa garatzeko diru laguntza.	Azkoitiko Udalararen eta "Herrixen" Azkoitiko Merkatarien Elkartearen arteko lankidetzarako baldintzak ezartzea, elkarteari gaitasun tekniko eta materialak eskainiz, merkataritzaren zerbitzura lan egiteko.	Azkoitiko merkataritza gune berriak suspertzea eta sustatzea, eta lehendik daudenak indartzea. Herriko merkataritza errentagarriaren eta kalitatezkoaren lehiakortasuna eta eskaintza areagotuz.	30.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	IZENDUNA
Azkoitiko Udalerriaren lokalak alokairua sustatzeko laguntzak	Azkoitiko Alde Zaharreko lokal hutsak betetzea edota jardueretan belaunaldiaren aldaketaren sustatzea, Ekintzaile berrien bitartez.	Azkoitiko udalerriaren, merkataritza dentsitate txikiko eta lehentasunezko eremuetan merkataritza berreskuratzea eta indartzea eta eremu horiei bizia	24.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	NORGEHIAGOKA



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

		ematea. Era berean, ekintzaileek jarduera berriak martxan jartzeko aukerak izatea.			
Azkoitiko Udalerrian merkataritza sustatzeko laguntzak	Azkoitiko Merkatariek (elkartu naiz Elkartu gabeak), herrian Ekintza ezberdinak antolatzekeo laguntza ematea.	Azkoitiko merkatariek beraien Negozioetan kalitatezko zerbitzua ematea eta promozio kanpaina bateratuak egitea Herriko eskaintza hobetuz.	27.000,00	Finantzaketa funts propioekin egingo da Aurrekontuako IV kapituluaren kontura	NORGEHIAGOKA

### 8. artikulua. Diru-laguntzen plan estrategikoaren kontrola eta jarraipena

Azkoitiko Udalaren Diru-laguntzen Plan Estrategiko honen kontrola eta jarraipena urtero egingo da bi arloetan.

— Kontrol ekonomiko-finantzarioa, emandako diru-laguntzena; kontrol horren ardura Udaleko Kontu-hartzailetzarena da, eta indarrean dagoen legerian xedatutako baldintzetan egingo da.

— Planaren kontrol eta jarraipena, udaleko kontu-hartzailetzak bilduko duena; horretarako, Diru-laguntzak emateko prozeduraren instrukzioa egiten duen Zerbitzu bakoitzak ebaluzio-memoria bat helaraziko du, hurrengo ekitaldiko lehen lau hilekoan

Azkoitian, 2023ko urtarrilaren 18an  
ALKATEAK,

Javier Zubizarreta Zubizarreta



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

## **ANUNCIO**

El Ayuntamiento en Pleno de fecha 22 de diciembre de 2022 aprobó el siguiente acuerdo:

**PRIMERO.-** Aprobar el Plan Estratégico de subvenciones 2023-2025 del Ayuntamiento de Azkoitia, quedando el texto de la siguiente manera:

### **PREÁMBULO**

El artículo 8.1 de la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, tiene carácter básico, por lo que todos los Ayuntamientos que pretenden otorgar subvenciones deben aprobar su correspondiente Plan Estratégico de Subvenciones.

La Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, supone un paso más en el proceso de perfeccionamiento y racionalización del sistema económico.

Uno de los principios que rige la Ley es el de la transparencia que, junto con la gran variedad de instrumentos que se articulan en la Ley, redundan de forma directa en un incremento de los niveles de eficacia y eficiencia en la gestión del gasto público subvencional.

En este sentido, una mayor información acerca de las subvenciones hará posible eliminar las distorsiones e interferencias que pudieran afectar al mercado, además de facilitar la complementariedad y coherencia de las actuaciones de las distintas Administraciones Públicas evitando cualquier tipo de solapamiento.

Para mejorar la eficacia, se prevé en la Legislación que se proceda a elaborar un Plan Estratégico de Subvenciones, de carácter plurianual y con carácter previo al nacimiento de las subvenciones o los convenios de colaboración que la corporación pueda celebrar.

Teniendo en cuenta el carácter de previsión del plan estratégico de Subvenciones, pueden producirse cambios, que en cualquier caso deberán ajustarse a la Ley, a la Ordenanza específica, a la realidad social existente en cada momento y fundamentalmente a los presupuestos del correspondiente ejercicio.

Por último, señalar que el establecimiento efectivo de las subvenciones previstas en este Plan requerirá la inclusión de las consignaciones correspondientes en los presupuestos municipales de cada año y quedará supeditado al cumplimiento de los objetivos de estabilidad presupuestaria.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

## **CAPÍTULO I. DISPOSICIONES GENERALES**

### **Artículo 1. Naturaleza jurídica.**

El Plan Estratégico de Subvenciones es un instrumento de gestión de carácter programático, que carece de rango normativo.

La aprobación del Plan Estratégico de Subvenciones no supone la generación de derecho alguno en favor de las potenciales entidades y/o personas beneficiarias. El Plan estratégico de Subvenciones se presenta como guía que, dentro del marco normativo preestablecido, marca la pauta a seguir en la línea de fomento de actividades de interés general.

Las cuantías previstas para cada línea de subvención son las recogidas en cada uno de los presupuestos anuales del Ayuntamiento. La vigencia de estas líneas de actuación para cada ejercicio presupuestario quedará condicionadas y limitadas a la aprobación de las mismas en el correspondiente presupuesto anual y a sus consignaciones. Previo a la concesión de cualquier tipo de subvención se procederá a la tramitación de la autorización del gasto correspondiente.

### **Artículo 2. Vigencia.**

La vigencia del presente Plan Estratégico de Subvenciones se establece para el periodo 2023-2025.

En el supuesto de que concluido el ejercicio 2023 no se hubiese aprobado aún un nuevo Plan Estratégico de Subvenciones, el presente se entenderá prorrogado en aquellas líneas de actuación que se vayan a seguir realizando, siempre que, para ello se cuente con consignación presupuestaria adecuada y suficiente.

Con carácter general, las subvenciones municipales tendrán un plazo de ejecución anual, siendo el periodo elegible a efectos de justificación el año natural. En aquellos supuestos en los que las circunstancias hagan conveniente la fijación de un plazo de ejecución superior al anual, o la modificación del periodo elegible, se deberán recoger en las correspondientes bases de subvenciones.

### **Artículo 3. Competencia.**

El órgano competente para la aprobación del Plan Estratégico de Subvenciones, es el Pleno municipal, al ser una actuación ligada a la aprobación de las Bases Generales y Específicas de subvenciones.



AZKOITIKO UDALA  
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

#### **Artículo 4. Ámbito.**

El presente Plan Estratégico de Subvenciones, abarca las subvenciones que se gestionan desde los distintos departamentos convocantes del Ayuntamiento de Azkoitia, que son:

- Hacienda, Personal y Organización Interna
- Deportes y Fiestas
- Cultura
- Educación y Euskera
- Servicios Sociales
- Igualdad y Prevención
- Obras y Servicios
